

Zer da BIZIKIDETZA?



**Ezagutzen eta errespetatzen al
ditugu ingurukoak?**



Aitortu-partekatu berdin
Eibar, 2019

Badihardugu Elkarte

Otaola hiribidea, 1
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75

NORENTZAT: Material hau begiraleentzat da, 12 urtetik gorako gazteekin lantzeko, aisia-guneetan (gaztelekuak, udalekuak...).

HELBURUA: Gaztetxoak bizikidetzari buruz gogoeta egitera bultzatzea, hainbat alor jorratuz: gerren arrazoiak eta ondorioak, migrazioak, genero berdintasuna, integrazioa, auzolana, errespetua... gure historia ezagutuko dute, testigantzen bitartez.

GAIA: Zer da bizikidetzatza? Ezagutzen eta errespetatzen al ditugu ingurukoak? Egia al da balio inportante batzuk galtzen ari garela?

ATALAK

Sarrera.....	3
1. Zer da gerra?.....	4
2. Ihes egin beharra: gerrako errefuxiatuak.....	5
4. Gerra eta gerraostea: ondorioak.....	7
5. Bizikidetzatza: errespetua eta auzolana.....	9
6. Zer da berdintasuna?	11
7. Aniztasuna eta integrazioa.....	12
8. Lanketak.....	13
OPARIAK EGIN	13
ELKARRIZKETATZAILE BIHURTU	14
BERTSOAK ASMATU	15
ANTZEZTU	15

Sarrera

Ahotsak.eus proiektuan 15 urte baino gehiago daramatzagu ahozko ondarea jasotzen. Bereziki adinekoak elkarriketatzen ditugu, bideoan. Beraien bizimodua nolakoa izan den kontatzen digute: mundu ikuskera, balioak, esperientziak. Bizikidetzaren oinarriak lantzeko testigantza baliagarri asko dauzkagu. 1936ko gerra bertatik bertara ezagutu zuten, hamaika bidegabekeria, baita gerraosteko gosea ere, baina elkarlana zer den ere ondo dakite: auzolanaren kultura, elkarri laguntzea, partekatzea, hutsetik sortzeko ahalmena. Material honen asmoa testigantza horiek gaztetxoei ezagutaraztea da: gure aurrekoen historia, protagonistek kontatuta. Nondik gatozen hausnartu dezaten. Gaur egungo bizimoduarekin aldera dezaten.

Material hau pedagogikoa da, baina ez da unitate didaktiko bat. Bideoak gaika antolatu ditugu: gerra, bizikidetzaren berdintasuna, aniztasuna... Guztiak ikusita, hainbat alor jorratzeko aukera izango dute gazteek. Proposatzen diren bideo guztiak ikusi eta hausnarketak egiteko, gutxienez ordubeteko 7 saio behar dira. Hori bai, erabiltzaileak erabakiko du noiz, zer eta nola egin.

Gure asmoa ez da idatzizko informazio zehatza eta ugaria ematea (deskribapenak, datuak): ahotsak dira hemen informazio-iturri nagusia. Oinarrizko zertzelada batzuk eman, eta bideoak ikusita, begiralearen eta gaztetxoen esku geratuko da informazio gehiago bilatzea, hausnarketa egitea eta ondorioak ateratzea.

1. Zer da gerra?

- Bizikidetza hausten denean, elkarren aurka borrokan hasten gara. Nolakoak dira gerrak? Zergatik gertatzen dira?
- Hemen egon al da gerrarik? Noiz? Zer gertatu zen?
- Entzun duzue gerrako konturik etxean? Kontatu!
- Posible ikusten duzue hemen beste gerra bat piztea? Zer egingo zenukete?

1936ko gerra garaian ume zirenek eta gaur egungo gaztetxoek gerrari buruz diotenarekin osatutako **BIDEO HAU** ikusi, eta ondoren komentatu:

Zer da gerra?



- Zer sentitu duzue bideoa ikustean? Ezerk harritu al zaituzte? Eta hunkitu? Eman iritzia.
- Lortu al duzue bideoan agertzen diren adinekoak (1936an ume zirenak) ume moduan irudikatzea?
- Zeintzuk dira gerrak dakartzan ondorioak? Gerra denak antzekoak al dira? Eztabaidatu. Iritziak jaso.

2. Ihes egin beharra: gerrako errefuxiatuak

- Gerra guztietan daude migratzaileak. Errefuxiatuak. Askok umeak izaten dira. Zer gertatu zen 1936ko gerran? 4 **BIDE LABUR HAUEK** ikusi ahala, komentatzen joan.

1. Bonbardaketak



- **Bonbardaketak**, herri askotan: Eibar, Otxandio, Bilbo...
- Latzenak, ezagunenak: **Gernikan** 1.000 hildako inguru; **Durango** 336 hildako

2. Ihesa



- Milaka pertsona joan ziren ihesi: oinez, itsasontziz...
- Batzuk Bizkaia aldera, beste batzuk Iparraldera

3. Erbestea



- 30.000 ume baino gehiago bidali zituzten erbestera
- Frantziara (11.000), Belgikara (5.000), Erresuma Batura (4.000), Errusiara (3.000)...
- Habana itsasontzia, ebakuazioen ikurretako bat: 3.861 ume, Erresuma Batura

4. Itzulera



- Bueltan, batzuek etxerik ez zuten. Dirurik ez, lanik ez...
- Errusiara bidalitako haurrek 20 urtean ez zuten bueltatzerik izan

- Nongo errefuxiatuak ezagutzen dituzue gaur egun? Zein herrialdeetakoek eskatzen dute babesa hemen? Zer ari da gertatzen beren herrialdeetan?



- Gaur egun gerran dauden herrialdeak munduko mapa batean kokatu.



- Erbesteratu batzuk gerretatik ihesi datoz, beste batzuk gosetik ihesi... Mediterraneoan gertatzen ari denari erreparatu. Zer nolako jarrera daukate Europako herrialdeek? Zenbat pertsona hiltzen dira urtero Europara iritsi nahian? Datuak topatu eta partekatu!
- Ongi etorri errefuxiatuak eta Kikarakada bezalako ekimenak ezagutuko ditugu. Ikertu, eta Euskal Herriko egitasmoak zerrendatu! Zertan dabilta? Zer aldarrikatzen dute?

3. Gerra eta gerraostea: ondorioak

- Era askotako bidegabekeriak dakartzate gerrek. Boterea daukanak “arerioari” mina egiteko erabili ohi du botere hori. Gerraostea ere garai latza izan zen bizikidetzarako. Binaka ipinita, bikote bakoitzak **BIDEO HAUETAKO BAT** ikusi:

1 Errekisatzea: ondasunak kentzea



2 Kartzela eta fusilamenduak



3 Saturrarango kartzela



4 Euskararen zapalkuntza



5 Ikastola klandestinoak



6 Franco Donostian



7 Ezkontzean, lantegitik bota



8 Nesken soldaduska: zerbitzu soziala



- Gainerako taldeetako kideei bideoan ikusitakoa azaldu, eta bideoari buruzko iritzia ere eman. Guztien artean eztabaidatu eta bizikidetzan duten eraginaz hausnartu.

4. Bizikidetza: errespetua eta auzolana

- Zein da bizikidetzarako gakoak? Elkar errespetatzeari adinekoek garrantzia handiagoa ematen diote belaunaldi berriek baino. Heziketa katolikoaren eraginez seguruenik baina, erlijioak erlijio, errespetua oinarritzkoa da edozein gizartetan. Ikus **BIDEOA:**

Elkar errespetatzea



- Uste duzue garai batean orain baino errespetu gehiago izaten zela guraso, lagun eta gainerako guztiekin? Balioak galtzen ari direla diote batzuek: egia al da?
- Zer dela eta batzuetan ez dugu elkar errespetatzen? Zerk eramaten gaitu horretara?
- “Auzolana” askotan darabilgun hitza da. Euskal Herriko antzinako ohitura da. Auzolana zer zen jakiteko, ikus dezagun **BIDEO HAU:**

Auzolanaren kultura



- Egia al da gurea auzolanaren kultura dela? Mantendu al da?
- Zer auzolan mota ezagutzen dituzue gaur egun?
- Gutxirekin pozik bizi zirela esaten dute elkarrizketatzen ditugun adineko gehienek, ez zutela askorik behar zoriontsu bizitzeko. Ikusi **BIDEOA:**

Gutxirekin pozik



- “Konformitatea” adinekoek askotan aipatzen duten hitz bat da. Zuek konforme zaudete daukazuenarekin? Ez daukazuen zer eduki nahiko zenukete?
- Kontsumoaren gizartean bizi gara: erosi eta bota. Batzuek diote gutxi izanda errazagoa dela partekatzea: gero eta gehiago izan, gehiago nahi dugula. Ados al zaudete horrekin?
- Denok daukagu asko? Gutxi dutenei laguntzen dieten hainbat elkarte daude Euskal Herrian bertan. Proiektu batzuk ezagutu ditzakegu.

- Jostailuak eta arropa biltzeko/trukatzeako proiektuak
- Elikagai-bankuak



- Zergatik ez dugu truke-azoka txiki bat antolatzen? Arropa, objektuak... erabiltzen ez duguna ekarri, eta gure artean trukatu dezakegu.

5. Zer da berdintasuna?

- Denok gara desberdinak, ezinbestean, eta desberdintasuna aberastasuna da. Ados zaudete?
- Asko hitz egiten da berdintasunaz, baina zer da berdintasuna? Neskak eta mutilak berdinak al gara? Afrikarrak, europarrak eta amerikarrak? Aberatsak eta pobreak?
- Berdintasunaz hausnartzeko balio duten **LAU BIDEO** ikusiko ditugu, eta komentatu.

1. Homosexualitatea tabu?



2. Emakumeak eta janzkera



3. Klase desberdintasunak



4. Baserritarrak gutxietsita



- Zeri esaten zaio “berdintasun falta”? Noiz gertatzen da? Bideoetan agertzen direnak aipatu. Bururatzen zaizue beste kasurik? Bota adibideak.

“Berdinak ez izan arren, aukera berak izatea, bazterkeriarik gabe”

6. Aniztasuna eta integrazioa

- Jatorri eta kultura askotako jendea bizi da gure artean. Gero eta gehiago. Ba al dakizu zenbat hizkuntza hitz egiten diren zure herrian? Hona hemen aniztasunaren erakugarri diren **HIRU BIDEO** (bat aukeratu eta ikusi):

Zumaia eleaniztuna



Donostia eleaniztuna



Aniztasuna Gipuzkoan



101 proiektuan Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak batzen ari gara. Talde txikietan ipini, eta webgunean saltseatu! Talde bakoitzak **bideo-pasarte bat aukeratu** dezala, gustatu zaion bat. Aukeratutako bideo-pasarte batzuk ikusi, eta komentatu.

- Aniztasuna aberasgarria dela esaten dugu, baina elkarren ezagutza txikia da. Aurreiritzirik ikusten al duzue beste kulturekiko? Zeintzuk?
- 60ko eta 70eko hamarkadetan, jende asko etorri zen Euskal Herrira, lanera. Nola eragin zuen horrek bizikidetzan? Nolakoa izan zen integrazioa? Egon al da arazorik?
- Euskaldunak ere **migratzaileak** gara: milaka euskaldun joan ziren Ameriketara, bizimodu hobearen bila. Gaur egun ere asko joaten dira kanpora lanera.
- Integrazioari buruzko **BI BIDEO** hauek ikusi, eta iritzi-trukea egin:

Etorkinak eta integrazioa



Euskara, integrazio hizkuntza



7. Lanketak

OPARIAK EGIN

- Bizikidetza posible izan dadin, garrantzitsua da elkarri laguntasuna eta maitasuna adieraztea. Nola egin dezakegu hori? **Besarkadak oparitu** ditzakegu, kalean!



- Guk geuk egin ditzakegu opariak. Dendan erosi ezin direnak, dirurik gabe edo diru gutxi izanda egin daitezkeenak. **Eskulanak** egingo ditugu, taldeka jarrita eta sormena erabiliz. **Txotxongiloak** egin ditzakegu, eta gero txotxongiloak oparitu! Edo sormen-lanen bat prestatu eta taularatu (ikusi "Antzeztu" atala)!

Behar dugun materiala:

- ✓ Galtzerdiak, gorputza egiteko
- ✓ Botoiak, ping-pong pilotak... begiak egiteko
- ✓ Artilea, ilea egiteko
- ✓ Foami edo fieltroa, ahoa eta osagaiak egiteko
- ✓ Goraizeak, kola, jostorratza eta haria



ELKARRIZKETATZAILE BIHURTU

- Ikertzaile eta **elkarrizketatzaile** bihurtuko gara, bizikidetza ardatz moduan hartuta.

GAI POSIBLE BATZUK

1. Herriko aniztasuna: hizkuntzak eta kulturak. Ezagutzen dugun elkar?
2. Genero ikuspegia: herriko emakumeen testigantzak. Zer aldatu da? Zer ez?
3. Elkar laguntzeko moduak: auzolana eta bestelakoak
4. Oroimen historikoa: gerrako eta gerraosteko kontuak, bizikidetza kutsatu zutenak
5. Sexu askatasuna: tabua al da oraindik?




PAUSOZ PAUSO

1. **Taldetxoak** osatu (2-3 lagun), eta aukeratutako gaiaren inguruko **galdetegia** prestatu. Zer jakin nahi dugu?
2. Nor elkarrizketatu? **Hitzordua** lotu eta **elkarrizketa** egin (bideoan; hona hemen [jarraibide batzuk](#)).
3. Grabatutakoaren **lanketa** egin. Aukera batzuk:
 - A. **Ikus-entzunezkoa** prestatu:
 - Bideo-pasarte batzuk aukeratu, editatu eta elkarren segidan ipini
 - Izenburua eta bukaerako letrak ipini
 - Argazkiak eta musika ere erabili ditzakegu
 - Egindako lana besteekin partekatu!
 - B. **Irratsaioa**:
 - Guztion grabazioak kontuan izanda, irrati-gidoia prestatu: narratzaileek zer esango duten, zer testigantza sartu une bakoitzean, zer musika eta soinu...
 - Narratzaileen ahotsak grabatu, eta edizio-lana egin (ikus irratsaio adibide bat: [Leitzako ikasleek egindakoa](#)).
 - Emaizta herriko irrati batera bidali. Ikus-entzunezkoa ere presta dezakegu, irudiak eta argazkiak gehituta.

4. Egoki iritzitakoak **sare sozialetan** zabaldu (elkarrizketatuen baimenarekin). Ederra litzateke gero grabazioak ahotsak.eus artxibora bideratzea.

BERTSOAK ASMATU

- Binaka ipini, eta bertsoak asmatu. Gaiak: bizikidetza, kultur aniztasuna, integrazioa, gerrako kontuak, oroimen historikoa, auzolana...




ANTZEZTU

- Antzerkia egin, antzerki-esketxak, bizikidetzan gertatu daitezkeen gatazka-egoerak oinarri hartuta. Hona hemen egoera posible batzuk:

• *Gerrako frontean, tiroa botatzera doanean, konturatu da beste aldekoa bere laguna dela. Berriketan hasiko dira.*

- *Gerra garaian, herriko ile-apaintzailea emakume bati ilea kaskamotz moztera behartu dute; emakume hori bere bizilaguna da.*
- *Gerraostean, astoarekin errotara bidean doala, garia isilka ehotzeko asmoz, Guardia Zibila agertu zaio: aitzakiaren bat asmatu beharko du.*
- *Neska gazte bat, 50eko hamarkadan: prakak jantzi ditu, lehen aldiz, eta kalean burla egin diote.*
- *Autobusean, afrikar bat aldamenean. Euskaraz ez duela jakingo suposatuz, eta lagunarekin berari buruz hizketan hasi da, euskaraz.*
- *Internet gabe bizi den baserritarra eta mobil gabe bizi ezin den kaletarra. Zein da jakintsuagoa?*

- Elkarriketa txikiak izan daitezke, bat-batean asmatutakoak. Denbora izanez gero, berriz, hona hemen antzezlanaren prestatzeko jarraibide batzuk:



- **Txotxongiloekin** ere egin daiteke! Istorioak txotxongiloen ezaugarrien arabera asma daitezke. Adibidez: *Urdina delako baztertzen dute.*



